



Gaur eramango dituzte
Auzitegi Nazionalera asteartean
atxilotutako zortzi gazteak

AUZITEGI Nazionalera eramango dituzte gaur astearte goizaldean Hernanin eta Urnietan atxilotutako zortzi gazteak. Atxilotu zituztenetik inkomunikatuta izan dira zortzi gazteak eta senideek jakin ahal izan dute konfidantzazko mediku baten bisita jaso dutela. Atzo eskualdeko manifestazioa izan zen herrian, atxilotuak askatzeko eskatzeko. /2

Hondakinen tratamendua eta
mugikortasuna hizpide gaur
Topagune Berdean

TOPAGUNE Berdea egitasmoaren hurrengo bilera deitu dute gaurko. Bertan hondakinen tratamendua eta herriko mugikortasunari buruz hitz egingo dute, alegia, herriko sektore ezberdinek, nahiz kotxe, bizikleta eta gainerako ibilgailuek, herrian barrena eroso ibiltzeko zer egin daitekeen. Udalak gai hauen inguruan dituen asmoak ere azalduko ditu. 10:00etan, Biterin. ||

❖ KARBONERA

Karboneraren 3garren urteurrena ospatuko dute gaur

Karbonera etxea okupatu zela hiru urte beteko dira gaur, eta hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera: antzerkia; *Kapitan Zafio* eta *Black Jiko* taldeen kontzertua; eta Prest DJ musika jartzailea izango dira, Karboneran. ||

❖ TXOTX DENBORALDIA

Puzgarriak gaur

Haurrentzako puzgarriak izango dira gaur, Txotx denboraldiko egitarauaren barruan. Goizeko 11:00etatik 14:00etara, Atsegindegin. ||

◆ BOLA

Gaztetxoentzako tiraldia izango da

Hamar urtetik gorako neska mutilei zuzenduta, bola tiraldiak izango dira gaur. Eguraldi ona eginten badu Goiz Eguzkin eta txarra egiten badu Floridan, 11:00etatik 13:00etara. ||

GAUR KRONIKAN

Jabetze Eskolak /2

Laburrak /3

Dantzari Festako azkeneko eguna gaur /3

Gazte Eguna gaur /3

KIROLAK: boleibola, futbola, saskibaloia... /7

Eskelak /7

Hernani Institutuan ikastaroak aukeran /8



Ohorezko A mailaren bila

HERNANIKO errugbi taldeak denboraldi ezin hobea egin ondoren, igoera promozioeko lehenengo partidua jokatu du bihar eguerdian. Aurkari Cadizetik etorriko den Atletico Portuense izango du, eguerdiko 12:00etan hasita. Igoera faseko lehen zatia bi partidutara jokatu da, eta bihar etxean jokatu ostean, hilaren 19an Puerto de Santa Mariara joango da talde hernaniarra, bueltako partidua jokatzera. Partidua jokatu aurretik, lortutako azken emaitza onei esker, indartsu eta ilusioarekin daude bai jokalariei eta baita entrenatzaileak, igotzea posible baita. /6

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

Orain inoiz baino merkeago !!
Zatoz gure prezioak ikustera !!

Ezin hobeak !!

(existentziak bukatu arte)

Fuzzy kontrol elektronikoa
Hydrosystem teknologia
21 programa

ZANUSSI
ZWF682

~~349€~~
orain **314€**



EVE: -105€
Azken prezioa: 209€

ZANUSSI
ZK-34/11 F6

~~549€~~
orain **494€**

EVE: -85€
Azken prezioa: 409€

Kapazitate totala: 340 L
Kapazitate utila: 245 L
Dynamic power NF



Gaur eramango dituzte Auzitegi Nazionalera astearte goizaldean atxilotutako zortzi gazteak

Astearte goizaldean atxilotu zituztenetik inkomunikatuta izan dira zortzi gazteak.

ASTEARTE goizaldean Hernanin eta Urnietan atxilotutako zortzi gazteak Auzitegi Nazionalera eramango dituzte gaur. Astearte goizaldean atxilotu zituztenetik inkomunikatuta izan dira, lehendabizi Donostiako komisaldegian eta ondoren Madrilen. Azken egunetan, atxilotutako senideek kezka adierazi dute, «inkomunkazio egoeran atxilotuek jaso zezaketen tratua dela eta». Antza denez, senitartekoak jakin ahal izan dute konfidantzazko mediku baten bisita jaso

dutela atxilotuek.

Manifestazioa atzo

Atxilotetak izan zirenetik egunero izan dira manifestazioak Hernanin. Atzo arratsaldean eskualde mailako manifestazioa zegoen deituta eta ehunka lagun bildu ziren bertan, atxilotuak askatzeko eskatzeko. Manifestazio hasieran inkomunikazioekin bukatzeko eskatu zuten eta salatu zituzten «euskal gazteriaren kontra eta independentismoaren kontra izaten ari diren erasoak». ■



Jabetze Eskoletako bi ikastaro berri jarriko dira martxan Aste Santuaren ondoren

Udal Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak antolatzen ditu Jabetze Eskolak. Emakumeentzako tailerrak izaten dira, gai ezberdinen inguruan.

ASTE Santuaren ondoren Jabetze Eskolen barruko bi ikastaro berri jarriko dira martxan. Jabetze Eskolak Udal Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak jarri zituzten martxan duela hiru urte. Jabetze Eskolak, azken finean, gai ezberdinen inguruan emakumeentzako antolatutako ikastaroak dira. Hiru urte hauetan guztira 129

emakumek hartu dute parte antolatutako tailerretan, eta espero dute aurrerantzean antolatutako direnetan ere, parte hartzea animatzea.

Gure amonengandik ikasiaz eta Autodefentsa ikastaroa dira apirilean martxan jarriko diren tailerrak. Izena emateko epea apirilaren 8an bukatzen da. Horretarako: 943 33 68 02 edo marijo-m@hernani.net. ■

► Bi ikastaro aukeran:

GURE AMONENGANDIK IKASIAZ

Gure familiako emakumeen bizipenak, transgresio txiki edo haundiak, ekarpenak, zailtasunak, zertan izan diren berritzaile eta abar aztertuko dute, Pepa Bojo Ballester irakaslearekin. Emakumeen arteko harremanak sendotu eta bultzatzea ere bada helburua, zauriak sendatzeko eta harreman solidarioak sortzeko.

•Asteazkenetan, 17:30-19:30. Apirilaren 22an hasiko da. 10 orduko iraupena. Matrikula: 6 euro.

AUTODEFENSA

Ikastaro honen helburuetako batzuk honakoak izango dira: emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoiak aztertzea, eraso sexisten aurka defendatzen ikastea, erasotzen gaituztenean nola jokatu jakitea, autoestima haunditzea eta elkartasuna areagotzea. Irakaslea, Maitena Monroy Romero izango da.

•Apirilak 25 larunbata, 10:00-14:00 eta 15:30-19:30. 8 orduko iraupena. Matrikula: 6 euro.

❖ MUSIKA

Musika Bandaren kontzertua bihar eguerdian

Musika Bandak kontzertua eskainiko du bihar eguerdian, Zipri Otxandorena zuzendari lanetan dela. *San Vicente en fiestas* diana, Musika Bandan aritutako Matias Martinezek konposatutako *Andres Urruzola* pasodoblea eta *Schindler's list* pelikulako banda sonora joko dituzte. Abesti hauetaz gain *Two Tribes* ere joko du bandak, gaur lehenengo aldiz. Jakinarazi dutenez, pieza oso animatua da eta perkusioak protagonismo handia du. Kontzertua bukatzeko *Concert march from 1941* izeneko pieza joko du bandak. Kontzertuaren ondoren sagardotegira joango dira bandako kideak denak elkarrekin. Kontzertua bihar eguerdik 13:00etan, udaletxeko arkupetan. ■

❖ LIBURU AZOKA

Alfonso Ceak 'Los heroes malditos' liburua aurkeztuko du gaur

Alfonso Cea hernaniarrak berak idatzitako *Los heroes malditos* liburua aurkeztuko du gaur liburu azokan, Erein argitaletxeko postuan, arratsaldeko 19:00etan. Dagoeneko 1.000 ale saldu dira eta izandako arrakasta

ikusita bigarren liburu bat prestatzen ari da. Bestalde, bihar itxiko da liburu azoka. Honakoa da azokaren ordu-egia: 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:30etatik 21:30etara. ■

❖ KIROLDEGIA

Ur ludoteka bihar

Kiroldegiko igerilekuan ur ludoteka izango da bihar, goizeko 10:30etatik 12:30etara. Bertan uretan ibiltzeko jostailuak jarriko dituzte haur eta gurasoek jolasteko. ■

❖ GARRAIOAK

Gaueko autobus urdina izango da gaur

Joan den asteko zerbitzu etenaldiaren ondoren, Garaiar autobus konpainiako arduradunek jakinarazi dutenez, gaur gauean berriro ere jarriko da martxan gaueko autobus zerbitzua, betiko orduategian. ■

❖ KINTOAK

54ko kintoen ospakizuna

54ko kintoen ospakizuna izango da apirilaren 18an, Txantxangorri elkartean. Izena emateko deitu:

943 55 29 61 (Joxe Mari). ■

❖ ODOL EMAILEAK

Odol estrakzioak asteartean

Odol estrakzioak egingo dituzte datorren asteartean, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara, anbulatorioan. ■

❖ MUSIKA JARTZAILEAK

Grassmann gaur Itxaski tabernan

Grassmann Lasarteko musika jartzailea izango da gaur Larramendi kaleko Itxaski tabernan. Continental breaks izeneko musika jarriko du. 20:00etatik aurrera. ■

❖ ASTE SANTUA

Bihar Erramu Igandea

Bihar Erramu Igandea da eta Aste Santuko meza hasiko dira. Biharkoan erramuak bedeinkatuko dituzte mezetan: goizeko 10:30etan, Ereñotzuko San Antonio parrokiari; goizeko 11:00etan, San Joan Bataiatzailearen parrokiari; eguerdik 12:30etan, San Joan Bataiatzailearen parrokiari. Bestalde Katekesi ospakizunak izango dira bihar: goizeko 09:30etan Agustinetan; eta 12:00etan, San Jose Langilearen parrokiari. ■

Dantzari txikien kale bueltarekin eta `Eskola` dantza taldearen emanaldiarekin bukatu da gaur Dantzari Festa

Gaur arratsaldeko 17:00etan dantza talde ezberdinetako dantzari txikiak ibiliko dira herrian barrena. Euria egiten badu emanaldia Biterin egingo dute.

DANTZARI Festa iritsi da azken egunera, euskal dantzeekin lotutako ekitaldiz betetako egunak pasa ondoren. Gaur dantza talde ezberdinetako dantzari txikiaren txanda izango da, izan ere, arratsaldeko 17:00etatik aurrera kalean ibiliko dira: Hernaniko Ttarla dantza taldeko, Irungo Ibarla Meaka taldeko, Errenteriko Ereintza taldeko, Donostiako Eskola eta Trebeska taldeetako eta Hondarrabiko Talaia taldeko dantzariak.

300 dantzari txiki gaur herriko kaleetan

Kale bueltan guztira 300 dantzari bilduko direla espero da, bakoitza bere jantzi eta dantzeekin. Besteak beste honakoak dantzatzeko dituzte: *ikurrin dantza*, *sardinera dantza*, *7 jauziak*, *zapatar dantza*, *txulalai*, *makil txiki*, *txangoak*, *jorrai dantza*, *zinta dantza*, *polka pik*, *orbaizetako jolas dantza*, *axuri beltza*, *san petit* eta *esku dantza*. Eguraldi ona egiten badu, Kardaberaz kalean, Kale Nagusian eta



Dantzari txikiak izango dira protagonista gaur Dantzari Festan.

► Egitaraua

Dantzari Txikien irteera Hernaniko kaleetan zehar.
Eurria egingo balu Biterin.
Arratsaldeko 17:00etan hasita.
Dantza Taldeak:
Ttarla dantza taldea (Hernani).
Ibarla Meaka taldea (Irun).
Ereintza taldea (Errenteria).
Eskola taldea (Donostia).
Talaia taldea (Hondarrabia).
Trebeska taldea (Donostia).

Eskola dantza taldearen emanaldia. 20:00etan, Biterin.

Plazan barrena ibiliko dira, baina eurria egingo balu, Biteriko areto nagusian egingo dute dantza.

`Eskola` dantza taldearen emanaldia Biterin

Bestalde, arratsaldeko 20:00etan *Eskola* dantza taldeko dantzariak euskal dantza erakustaldia egingo dute Biterin.

Dantzari Festako antolatzaileek herritarrak animatu dituzte dantza emanaldiak ikustera. ||

Bertso poteoa, barrikotea eta kontzertuak gaur Gazte Egunean

Eguerdiko 12:30etan Tilosetan botako den txupinazoarekin hasiko da Gazte Eguna.

GAZTE Eguna izango da gaur Hernanin, eta egun honen bueltan, eguerditik aurrera hainbat ekitaldi izango dira herrian, jaia eta aldarrikapena uztartuta.

Egitaraua

Gazte Eguna, Tilosetan, eguerdiko 12:30etan botako den txupinazioarekin hasiko da. Ondoren, eguerdiko 13:00ak aldera, bertso poteoa izango da herrian zehar. Eguerdiko 14:00etan barrikote herrikoia antolatu dute Tilosetan. Antolatzaileek jakinarazi dute bazkarirako txartelak 10 eurotan jarri dituztela salgai Garin tabernan, eta azkeneko momentura arte izango dela erosteko aukera. Arratsaldeko 18:30etan, kontzertuak izango dira Tilosetan, *Rockerrenak*, *Bisai* eta

Amaiur taldeekin. Gauerditik aurrera *DJ Bull* izango da musika jartzen.

Horrez gain, egun osoan zehar, txosna izango da Tilosetan.

Parte hartzeko deia

Gazte Egunaren antolatzaileek dei egin dute gaurko eguneko ekitaldietan parte hartzeko, «ez bakarrik gazteei, herri guztiari egiten diogu dei parte hartzeko, azken atxiloketa eta gertakarien aurrean denek bat egitea garrantzitsua baita» azaldu dute. Horrez gain, aipatu dute garrantzitsua dela «egun-egoera politikoaren aurrean independentzia eta sozialismoa aldarrikatzea, bai gaurko egunean eta baita gure eguneroko jardueran ere». ||

URAREN KUDEAKETA
ARAUTZEKO
ARAUDI BERRIA
ONARTU DU UDALAK

FAKTURAZIO SISTEMA BERRIA
JARRI DA

BANAKAKO UR KONTAGAILUAK
JARTZEKO KANPAINA ABIATU DA

INFORMA ZAITEZ:
WWW.HERNANI.NET-EN EDO
UDALETXEAN BERTAN

Hernaniko
Udala

Extremaduraren inguruko jardunaldiak izango dira gaur eta bihar Atsegindegi plazan. Gaurkoan Extremadurako txoko eta bazterrak ezagutzeko aukera bikaina izango da Biteri kultur etxean izango den bideo emanaldiarekin. Bihar berriz, egun guztiko festa izango da. Goizean Extremaduratik ekarritako

produktu gastronomikoen erakusketa izango da eta nahi izanez gero erosteko aukera ere bai. Gainera, Aste Santuetan bidaiatxo bat egiteko informazio turistikoa ere eskuragarri izango da. Eta nola ez, festa eguna girotzeko bertako folklorea ezagutzeko aukera izango da, dantza erakustaldiarekin.

Extremaduraren inguruko XVII. Jardunaldiak Hernanin

Extremadurako kutixiak eta folklorea bertatik bertara

EXTREMADURAKO paisaia eta bazterrak ezagutu, bertako gozoak, txorizoa, odolkoa, gazta eta ardo bikaina probatu, eta musika eta dantza-rekin asteburu atsegina pasatzeko aukera izango da herrian; gaur eta bihar Extremaduraren inguruko XVIIgarren Jardunaldiak izango baitira.

Jardunaldiak Donostian dagoen Extremadurako zentroak antolatzen ditu. Gipuzkoa mailan dagoen zentro nagusia da, eta aurten gainera 30garren urteurrena betetzen du. Bertan bildu izan dira ordutik ona, bere garaian Extremaduratik Gipuzkoara etorri behar izan zutenak, familiarekin, hango ohiturak mantedu eta herriki-deekin biltzeko.

Gaur ikus-entzuzeko proiektzioa Biterin

Jaialdia gaur arratsaldean hasiko da, Biteri kultur etxean izango den ikus-entzuzeko emanaldiarekin. Bertan, Extremadura irudi bidez ezagutzeko aukera bikaina izango da, herrialde historiko honek dituen paisaia, monumentu eta txokoak erakutsiko baitituzte, besteak beste. Gaur 19:30etan.



Dantza erakustaldiak Virgen de Guadalupe taldeak emango ditu.

saia, monumentu eta txokoak erakutsiko baitituzte, besteak beste. Gaur 19:30etan.

Bihar egun haundia, goizetik hasita

Bihar egun haundia izango

da herrian bizi diren Extremadurako guztientzat. Batez ere, bertan jaio eta askotan joateko aukera ez duen jendearentzat. Hala ere, festaren helburua da, baita ere, Extremadurako berri ematea

hernaniarrei eta bertara hurbiltzen direnei.

Atsegindegiko plazara goizeko 10:00ak inguruan hurbiltzen direnek Extremadurako jaki gastronomikoen erakusketa izango dute.

Bertako produktuak diren txorizoa, odolkoa, ardoa eta abar dastatu eta erosteko aukera izango dute. Honez gain, esku langintzako erakusketa ere izango da *Las Hurdeseke* eta *Guadalupeko* esku langileen eskutik. Postu bat ere izango da Extremadurari buruzkoa, bertako turismoari buruzko liburu eta propagandarekin.

Bazkaldu aurretik eta ostean berriz, 13:00etan eta 17:30etan dantza emanaldiak izango dira, Donostiako Extremadura Zentroko *Virgen de Guadalupe* taldearen eskutik. ||

Egitaraua

LARUNBATA

19:30etan. Extremadurari buruzko bideoak.

IGANDEA

10:00etan. Extremadurako jaki gastronomikoen erakusketa. *Las Hurdeseke* eta *Guadalupeko* esku langintzako erakusketa. Liburuen postua eta turismo propaganda.
13:00etan eta 17:30etan. Donostiako Extremadura Zentroko *Virgen de Guadalupe* dantza taldearen emanaldia.

J.A. TORRES
-ARGAZKILARITZA-
IMAGE CENTER

Zure argazkiak ipintzen ditugu...
Produktu pertsonalizatuak
600 produktu baina gehiago zure eskura



EGIN ZURE ÁLBUM DIGITALA ETXETIK

DESKARGA
DOHAIN

HOFMANN; www.hofmann.es código 340474
DPBOOK; www.dpbook.es código 00872

Errebelatu Digitala ordu 1-ean

ARGAZKILARITZAN BEHAR DUZUN GUZTIA

Zure VHS, Mini dv, 8mm,
Dvd-ra pasatzen ditugu.



BIDALI ZURE ARGAZKIAK
EMAIL-ez
-fotostorres@telefonica.net



kalitatean
zerbitzuan
prezioetan

HERNANIKO
ERDIAK
-%3

Extremadurako Elkarteko kideak

Lucila Garcia (fundatzailea) eta Santi Gil (fundatzailea eta presidente ordea):

«Garai batean etorri zirenen seme-alabek eta bilobek Extremadura berea balute bezala sentitzen, baloratzen eta maitatzen dute»

Gaur eta bihar Extremaduraren inguruko jardunaldiak izango dira herrian. Lurrealde hori gehiago ezagutzeko asmotan Lucila Garcia (hernaniarra) eta Santi Gilekin hitz egin du Kronikak.

Aurten XVIIgarren aldiz ospatuko dituzue Extremaduraren inguruko jardunaldiak, eta urtetik urtera harrera hobea izaten duzue herritarren aldetik. Zein uste duzue dela sekretua?

Orain 17 urte konturatu ginen elkarteak Donostiatik irten egin behar zuela, Extremadurako kultura eta gastronomia herriz herri zabaldu behar genuela. Beraz, herri ezberdinetako udaletxeekin harremanetan jartzea erabaki genuen, eta hauek oso ondo hartu gintuzten. Dagoeneko 17 urte pasa dira, eta pixkanaka gure helburua betetzen ari da. Jardunaldietara Extremadurako jendea etortzeaz gain, herriko bertako geroz eta jende gehiago etortzen da, eta hori oso aberasgarria da.

Jardunaldi hauek bereziak izaten dira garai batean Extremaduratik Euskal Herrira etorri ziren guztientzat. Baina esan bezala zuen helburua harantzago doa, Extremadura promozionatzeko aukera ezin hobea da ezta?

Noski, Extremadurako jendearentzat egun bereziak izaten dira. Handik etorritako guztiek ezagutzen dute hura, baina gauza batengatik edo bestearengatik ezin izaten dute nahi adina joan. Beraz, egun oso berezia izaten da haien zat. Eta gainerako herritarrentzat ere bai, Extremadurako gastronomiak fama handia dauka eta hori bertatik bertara eskuratu ahal izateak asko erakartzen du. Gainera, bide batez, Extremadura bera promozionatzeko aukera ere izaten dugu, azkenean, Jardunaldien helburua hori izaten baita. Jendeak bertan izango den postu batean nahi adina informazio



Lucila Garcia eta Santi Gil.

izango du bidai eder bat egin ahal izateko.

Jardunaldiak gaur hasiko dira Biterin izango den bideo emanaldiarekin, zer ikusiko dute bertara hurbiltzen direnek?

Ikus-entzunezko bideo emanaldi baten bidez Extremadura iparraldetik hegoaldera ezagutzeko aukera izango dute. Bideoa ordu eta erdi ingurukoa da eta bertan ikusi ahal izango dira besteak beste Caceres monumetala, milaka gereziondo dauden lurraldea, Merida kapitala eta Andaluziarekin mugan dauden etxe txurien herri ederrak.

Beraz, Aste Santuko oporrak gainean ditugula kontuan izanda, oraindik nora joan ez dakitenek

aukera polita izango dute Extremaduraz erakartuta sentiitzeke. Zuek zein ruta proposatuko zenituzteke?

Extremadurak duen gauzarik onena da era guztietako turismoa egin daitekeela bertan. Caceres monumetala esaterako Gizadiaren Ondarea da. Orain adibidez gereziondoen loratzea izan da, eta gereziondoz josiak dauden herriek milaka eta milaka pertsona erakartzen dituzte. Merida kapitala berriz, hiriburu erromanikoa da, ikusteko aparta. Eta beste era bateko turismoa egitea gustatzen zaionak ere badu nahikoa aukera Extremaduran, bailara ugari daude, aintziren ruta ere egin daiteke, oso polita da. Baita ere, fama handia dute etxe

txuriz beteta dauden herriek, Badajoz hegoaldean daude, Andaluziarekin mugan. Mendia gustuko duenak ere, badu non ibili. Esan bezala, aukera zabaleko herrialdea da Extremadura.

Esan bezala asko dira oraindik Extremadura ezagutzen ez dutenak, beste asko berriz urtero joaten dira bertara. Askoren aitona izan ziren herria utzi eta Hernanira etorri zirenak, baina gaur egun oraindik, haien bilobak joateko ohiturarekin jarraitzen dute. Zergatik ote?

Gauza ederra da hori. Aitona amonengandik, seme alabetera pasa da tradizioa, eta hauek bere seme alabei pasa diete. Extremadurak 60garren hamarkada inguruan zuen biz-

« Extremadurak duen onena da era guztietako turismoa egin daitekeela bertan: Caceres monumetala, Merida kapitala edo etxe txurien herriak ezagutu, ruta edo mendi buelta ezberdinak egin... »

tanleriaren erdia galdu zuen, kalkulatu da 900.000 pertsona inguruk utzi zutela herria; odoluste moduko bat izan zen. Hernanira 2.000 inguru etorri zirela kalkulatu da. Baina zure herria uzten duzue, eta nahiz eta beste batean gustura bizi, herri mina sentitzen duzu. Beraz, jendeak barruan noizik eta behin itzultzeko txispa hori izaten jarraitzen du, eta ondorengoei transmititzeko gai izan dira. Orduan etorri ziren haien seme alabek eta bilobek Extremadura berea balute bezala sentitzen dute, baloratzen dute eta maitatzen dute.

Hala ere hemen biltzen jarraitzeko ohitura mantentzen duzue Donostian orain 31 urte zabaldu zen Extremadurako Zentroan ezta?

Bai, hala da, martxoan bete ziren 31 urte ireki zela. Orduan gainera, sortu zen urtean hernaniarra asko ziren tartean, eta gu biok ere han ginen. Honorio Barrante hernaniarra esaterako Zentroko presidentea ere izan zen, 6 urtez; 80tik 85era. Orduan Gipuzkoa mailan zegoen bakarra zen, eta Donostian jarri genuen joateko lekuri errazena izan zitekeelako. Gaur egun ordea, beste hainbat herritan ere egin dituzten: Errenterian, Lasarten, Zarautzen, Andoainan, Tolosan, Legazpin eta Arrasaten. Hernaniko eta inguruko jardunaldiak esaterako Donostiako zentrotik antolatzen ditugu. Eta honetaz gain, urtean zehar beste hainbat ekitaldi ere antolatzen ditugu zentroan bertan, estareko: antzerki taldeak, folk-a, konferentziak... Gure ohiturak mantendu eta gure artean gustura egoteko leku ederra da. ■

◆ ERRUGBIA- Igoera promozioa

Etxeko artilleria prest du Hernanik, igoera gauzatzeko

Ohorezko mailara igotzeko promozioa lehen partidua jokatuko du bihar Hernanik Landaren, 12:00etan. Etxean ikasi eta aritutako jokalariekin arituko da Puerto de Santa Mariatik etorriko den Atletico Portuenserren kontra.



Gurutz San Miguel (2garren entrenatzailea), Rafa Larretxea (ordezkaria) eta Joxe Elosegi (entrenatzailea).

IRITSI da urte guzti hauetako eta batez ere denboraldi honetan egindako lan guztia saritua ikusteko garaia. Bihar Ohorezko A Mailara (Estatu mailan altuena) igotzeko promozioa jokatuko du Hernanik, Puerto de Santa Mariatik etorriko den Atletico Portuenserren kontra. Partidua eguerdiko 12:00etan izango da, Landaren.

Hasteko, joan etorriko partiduak

Igoera lortzeko Hernanik hainbat partidu jokatu behar ditu. Lehenengoa asteburu honetan izango da, Atletico Portuenserren kontra. Igoera promozioa Estatuan Ohorezko B mailan dauden bi multzoen artean jokatzen da: iparraldekoa eta hegoaldekoa. Iparraldeko multzoan Gernika geratu da aurrenekoa eta Hernani bigarren. Hegoaldekoan berriz, Atletico Portuense izan da aurrenekoa eta Madrilgo Alcobendas bigarren. Igoera promozioa ipa-

rraldeko aurrenekoak hegoaldeko bigarrenaren kontra jokatzen du, eta iparraldeko bigarrenak (Hernanik) hegoaldeko aurrenearen kontra. Promozioa bi partidutara jokatzen da, joan etorrian, eta Hernanik lehenengoa etxean izango du, bihar.

Bi multzoen arteko lau partiduak jokatu ondoren, irabazi duten bi taldeek euren artean jokatuko dute beste partidu bat, eta hori irabazten duenak zuzenean lortuko du Ohorezko A mailarako pasea. Galtzen duenak berriz, Ohorezko A mailan azkenaurrena geratu denaren kontra jokatu behar du, eta hari irabaziz gero igoko da.

«Herriko jokalariekin osatutako taldea»

Asteazkenean Landaren izan zen prentsaurrekoan Rafa Larretxeak adierazi zuen

Hernanik igoera lortzeko duen guztia emango duela «bai jokalaria eta bai partiduro Landarera hurbiltzen diren zaletuak saritzeko».

Prentsaurrekoan baita ere, Rafa Larretxeak azpimarratu zuen Hernaniko errugbi taldeak duen meritua: «Ohorezko B mailan 16 talde aritzen dira, eta horietatik bat bera ere ez dago etxeko jokalariekin osatua. Gurean ordea, bat izan ezik, beste guztiak harrobiko jokalaria dira». Joxe Elosegi lehen taldeko entrenatzaileak esan zuenez, beste taldeen atzerritar kopurua nabarmena izaten da: «gainerako taldeetan, atzerritarren media 6 jokalar ingurukoa da».

Taldearen sasoiari buruz ere hitz egin zuen lehen entrenatzaileak eta adierazi zuen, Hernani azken urteetan erakusten ari den maila ona, ez

dela generazio on batek eragina, baizik eta maila guztietan oso jokalaria onak daudela: «Hernanik azken urteetan erakutsi duen maila ez da generazio on baten kontua izan. Atzetik datozen jokalaria ere oso onak dira, eta pixkanaka maila mantendu beharrean, urtetik urtera hobetzen ari gara».

Biharko partiduari begira, jokalaria konfiantzarekin daudela adierazi zuen Joxe Elosegik: «azken partiduak ondo jokatu ditugu, dakiguna zelaian ondo erakutsiz, eta horrek taldearen ilusioa eta konfiantza sendotzen lagundu du; beraz, igotzea posible dela uste dugu, lortu dezakegula».

Igoera gauzatzen bada ere herriko jokalariekin jarraitzea dutela helburu adierazi zuen Joxe Elosegik «taldearen filosofia herriko edo harrobiko jokalariekin jokatzea da. Egia

da igoko bagina postu batzuk sendotu beharکو genituzkeela, baina taldearen oinarriek berdin jarraituko dute».

Cadizera bidaiak 10.000 euro

Atletico de Portuenserren kontrako bigarren partidua Cadizen izango da, eta bidai osorako, taldeak 10.000 euro inguru beharکو dituela kalkulatu dute. Bidaiak hegazkin ez egingo dute, taldeak ahalik eta neke gutxien nabaritzeko. Horregatik, eta oraindik esponsorrik ez dutelako, dirua lortzeko mariskada baten zozketarako txartelak saltzen ibiliko dira gaur arratsaldean, Kaxkoan zehar. Biharko partidurako sarrera berriz 5 euro kobratuko dute. Modu honetara, gastu hauei aurre egiteko 10.000 euroak ez dituzte lortuko, baina sos batzuk ateratzeko balio izango dute. II

ESKOLA KIROLA - JOAN DEN ASTEBURUKO EMAITZAK

SASKIBALOA

Benj. mut.	Elizatxo A-Elizatxo B	2-1
Benj. mut.	Urumea A-Langile A	3-0
Benj. mut.	Langile D-Langile B	3-1
Benj. mut.	Urumea B-Langile C	0-3
Infantil mut.	Urumea HKE-Sarralle ISB	3-0
Infantil mut.	Axular A-Elizatxo	69-53
Infantil mut.	Lan. Ast.-Lizeotarrak	15-41
Alebin. nes.	Landaberri-Langile	32-22

FUTBOLA

Benj. nes.	Langile C-Urumea	0-4
Benj. nes.	Langile B-Langile D	0-4
Alebin. nes.	Langile B-Urumea	2-4
Benj. nes.	Langile A-Elizatxo	5-5
Aleb. mut.	Langile B-Elizatxo B	4-3

Infan. nes.	Elizatxo CDH-Lan. Uru. CDH	6-0
Alebin. nes.	Elizatxo-Langile A	8-4
Aleb. mut.	Langile A-Inmaculada	11-2
Aleb. mut.	Langile C-Elizatxo A	0-8
Infantil mut.	Urumea-Internacional M.	8-3
Infan. nes.	Oiartzun-Hernani	4-1

PALA

Alebin. nes.	Urumea A-Xabier Munibe	14-20
Infan. nes.	Langile A-Erniobeia	25-13
Infan. nes.	Langile B-Anoeta B	25-8
Infan. nes.	Urumea-Loinazpe Ataun	25-2
Alebin. nes.	Ikasberri A-Langile A	69-53
Alebin. nes.	Iraurgi-Urumea B	15-41
Infan. nes.	Ikasberri-Langile D	32-22



Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA

◆ FUTBOLA

Hernani eta Mundararren arteko derbya gaur Astigarragan

Emakumezkoen ligan, Hernani-Lazkao bihar Zubipen

DERBYA izango du gaur Gorengo mailako taldeak Astigarragako Mundarro taldearen kontra.

Joan dean astean, partiduko azken momentuan garaipena eskuratu ondoren, bigarren jarraitzen du Hernanik sailkapenean; lehenengo postuan Aretxabaleta dijoa, hernaniarrak baino 5 puntu gehiagorekin.

Mundarro 14garren da sailkapenean, 24 punturekin,

hernaniarrak baino 26 gutxiago. Beraz, aurreneko postua berreskuratu ahal izateko, txuri berdeentzat ezinbestekoa izango da gaurko hiru puntuak lortzea. Denboraldi honetan sasoi onean dagoela erakutsi du talde hernaniarrak, eta maila hori mantenduz, Aretxabaleta hutsen zain egon beharko dute. Partidua arratsaldeko 16:30-etan izango da, Astigarragako Zarkumendegi zelaietan.

Emakumezkoen ligan, Hernani-Lazkao bihar
Emakumezkoen ligako taldeak igoera faseko partiduekin jarraitzen du, eta bihar Lazkao taldea hartuko dute etxean, arratsaldeko 16:00etan. Igoera fasea zaila du talde txuri berdeak, multzo bakoitzeko lehenengo bakarrik sailkatzen baita hurrengo faseko partidua jokatzeko. Hala ere, aukera hori mantentzeko irabazi egin beharko du gaur Hernanik. ||

◆ SASKIBALOA

Kadete eta jubentilek gaur jokatu dute, biek kiroldegian

Aste Santu aurretik jokatu zituzten azken partidua izango dira gaurkoak jubentile eta kadete mailako taldeentzat. Biek kiroldegian jokatu dute: Kadeteek arratsaldeko 16:15etan izango dute partidua, Easo Basoaren kontra; jubentilek berriz, arratsaldeko 18:00etan Easo San Patricioren aurka. ||

◆ BOLEIBOLA

Neskek, Gipuzkoako ligan, Lizardi izango dute aurkari

Boleibolan, Gipuzkoako ligako nesken partidua bakarrik izango da asteburu honetan. Lizardiren kontra jokatu dute, gaur, arratsaldeko 16:00etan, Zarautzen. ||

Euskal ligako neskek bukatu dute denboraldia

Euskal Ligako neskek bukatu dute denboraldia.

Neskentzat kategori honetan egin duten aurreneko denboraldia izan da, eta emaitza gazi gozoak lortu dituzte. Azken partiduetan jokoa asko hobetu duten arren, lau partidu besterik ez dituzte irabazi. Sailkapenean goi postuetan geratu diren taldeen maila hernaniarra baino altuagoa da, baino etxeokoz izan dituzte partidu horietako batzuk irabazteko aukerak. Alai entrenatzailearen esanetan «datorren urtean gogor ekin beharko diote sailkapenean gora egin ahal izateko». ||

Euskal ligako mutilak igoera fasea jokatzeko sailkatu dira

Euskal ligako mutilek ordea, nahiz eta joko eskasa erakutsi duten ligako partidu guztiak irabazi dituzte eta igoera fasea jokatzeko sailkatu dira. Hala ere, Alai entrenatzailearen esanetan «zoritxarrez, klubak ez dauka dirurik igoera faseak suposatzen duen gastuari aurre egiteko, eta txapelketara joateari uko egin behar izan dio taldeak. Erabakia gogorra izan da jokalariei zein teknikoentzat, denboraldi osoko motibazioa hori bera izan baita. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Errexilen kontra jokatu du gaur Yone Boutiquek kiroldegian

Yone Boutique areto futbol taldeak Errexilen kontra jokatu du gaur kiroldegian. Joaneko partiduan hernaniarrak nagusi izan ziren Azkoitian baina Julen Giraldo entrenatzaileak adierazi duenez «partidua guztiak ezberdinak izaten dira eta gure helburua beste garaipen bat lortzea izango da. Gainera, irabazita, joan den astean galdutako partidua ahaztuko dugu, eta sailkapenean atzetik datozen taldeekiko tarte ere haunditzeko aukera izango dugu». Partidua gaur 18:30etan, kiroldegian. ||

◆ BATELAK

Gipuzkoako ligako azken estropada jokatu da asteburuan

Asteburu honetan amaituko da Gipuzkoako bateletako liga. Gaur izango da ligako azken estropada eta honek, bihar izango den Gipuzkoako Txapelketarako sailkapen bezala balioko du. Infantilek ziuurrik ligako 4garren postuan amaituko dute. Kadeteek berriz, lehenengo zortzien artean bukatu eta txapelketarako sailkatzea izango dute helburu, igandean postu ona lortzea zailago izango duten arren. Nesken kasuan, kategoria ezberdinetakoak talde berean ibiltzen direlako, ezingo dute txapelketan parte hartu. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JOXEPA INAXI PERURENA

Martxoaren 30ean hil zen Kanbon, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Bere senarra: Bitorio Mendizabal; anai-arrebak: Juanita Izagirre (Patxi Perurenaren alarguna), lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **10:30etan**, Ereñotzuko **SAN ANTONIO** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko apirilaren 4an

I. URTEURRENA

Pedro Miranda Oraa



"Joan zinen gu hemen utzita baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko"

Hernanin, 2009ko apirilaren 4an.

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				SASKIBALOA			
Gorengo maila	Mundarro Hernani	Zarkumendegi	Gaur 16:30	Jubentilek	Hernani Faso San Patricio	Kiroldegian	Gaur 18:00
Bigarren regionala	Hernani Asoleus	Zubipen	Bihar 18:00	Kadeteak	Faso Rasoa	Kiroldegian	Gaur 16:15
Emakumezkoen I liga-Igoera.	Hernani I Lazkao	Zubipen	Bihar 16:00	BOLEIBOLA			
Jubentile. Liga nazionala.	Hernani-Indartsu	Zubipen	Gaur 16:30	Gipuzkoako I ligako neskek	I bardi Hernani KF	Zarautzen	Gaur 16:00
Jubentile. Lehenengo maila.	Amara Berri-Hernani	Martutenen	Bihar 15:30	ERRUGBIA			
Kadeteak. Ohorezko maila.	Hernani Oshadar	Zubipen	Bihar 11:30	Ohorezko B maila	Hernani Atletico Portuense	I andaren	Bihar 17:00
Kadeteak. I. lehenengo maila.	Hernani Durbioa Eguzki	Zubipen	Gaur 12:00	ERREMONTEA			
Kadeteak. I-11	Zumalako-Hernani	Alta Marín	14an 18:00		Mabxin IV Baleztena/Zulaika Zubizarreta	Galarretan	Gaur 16:00
Infantilek. Ohorezko maila	Aretxabaleta Hernani	Ibarran	Gaur 11:30		Fzkurra Ton/Altuna IT Fbeberria	Galarretan	Gaur 16:00
Infantilek Txiki	Kostkas Hernani	Mabigoxotegi	Gaur 12:00		Utterga Triarte/Tuarishi Radiola	Galarretan	Gaur 16:00
					Agirresarobe Olazar/Mabxin III Agirrezabala	Galarretan	Gaur 16:00

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20



www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Egunez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gaez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Euria egingo du, batez ere goiz partean. Arratsaldean atertze aldera egitea espero da. Tenperaturak zertxobait behera egingo du.
BIHAR Igandean tenperaturak gora egingo du eta giro epela izango da. Lainoak desagertzen joango dira eta eguzkia nagusituko da. (euskalmet)



Erdi Mailako Elektrizista Zikloa eta Goi Mailako Zikloetarako Sarbide Froga prestatzeko aukera Hernani Institutuan

APIRILAN zehar Hernani Institutuan eskaintza partzialeko bi ikastarotan izena emateko aukera izango da: Elektrizitateko Erdi Mailako Zikloa; eta Goi Mailako Zikloetarako Sarbide Froga prestatzeko ikastaroan. Izena ematea apirilean zehar egin behar da, baina matrikula irailean egingo da. Ikastaroak urrian hasiko dira Informazio gehiagorako 943 55 11 88 telefonora deitu.



Aurten, elektrizitateko zikloan dauden ikasleak.

Elektrizitatea: ezagutzak eguneratu eta titulua eskuratu

Elektrizitateko ohiko zikloa goizez ematen da eta bi urteko iraupena izaten du. Eskaintza partzialaren barruan antolatutako elektrizitate ziklo hau ordea, arratsaldez eta hiru urtetan ematen da. Helburua da lanean dabilzanek erraztasunak jartzea zikloa aurrera atera ahal izateko. Zikloa bukatuta elektrizista titulua eta instalatzaile

titulua lortzen dira, hainbat instalazio egin eta sinatzeko beharrezkoak.

Ziklo honetan izena emateko honako titulazioa behar da: DBH, FP1, BUP2, REM edo Erdi Mailako Zikloetarako Sarbide Froga gaindituta izatea.

Elektrizitateko zikloa, Hernani Insitutuak Donostiako IFPS Easo ikastetxearekin batean ematen du.

Gaur egun ziklo honetan dabilzanek azpimarratu dute, lana eta ikastaroa batera egitea gogorra den arren, pena merezi duela, ezagutzak

berritzeaz gain, lana egiteko beharrezkoa den titulazioa eskuratzen baita.

Goi Mailako Zikloetarako Sarbide Froga

Eskaintza partzialaren barruko bigarren kurtsoa, Goi Mailako Zikloetarako Sarbide Froga prestatzeko kurtsoa da. Izena emateko baldintzak dira, 19 urte beteta izatea, edo bestela, 18 urte izan eta Erdi Mailako Ziklo bat eginga izatea.

Ikastaroa arratsaldez izango litzateke, astelehenetik asteazkenera. ||

❖ ZINEA BITERIN

'El curioso caso de Benjamin Button' jarriko dute bihar

Gaur ez da zine saiorik izango Biterin, baina bihar *El curioso caso de Benjamin Button* pelikula jarriko dute. Arratsaldeko 19:30etan. ||

❖ GALDUTAKOAK

Belarritako bat galdu zen ostiralean

Belarritakoa galdu zen ostegunean Plaza Berritik Izpizua kale aldera. Luzexka da eta bola bat dauka, zilar puska batekin. Jabeari bueltatuz gero ordaina izango du. Harremanetarako: 660 638 587. ||

Setter txuri-beltza galdu da

Zortzi hilabeteko setter txuri-beltza galdu zen joan den martxoaren 29an, Gartzia Golaraz inguruan. Emea da eta hilea moztu berria du. Zerbait jakinez gero deitu: 677 706 088 edo 943 55 52 39. ||

URREZKO EZTEIAK
Mari Carmen eta Jesus
 50 urte elkarrekin
ZORIONAK !!

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Ford Transit T350 salgai. 10m3, 5 urte (7000 euro). Deitu: 655 708 226.

Pisua salgai Larramendi kalean. 3 gela, egongela, 2 komon, sukalde jangela, aszensorea eta trasteroa. Eguzkitsua. Deitu: 943 55 04 26

Etzeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Haizea
 Kardaberaz 2
 Tif. 943 55 55 19

RENOVE PLANA

zure sujetadore zaharra ekarri iezaiguzu eta berri bat erosterakoan

10€ arteko deskontua egingo dizugu



hoki
 lentzeria
 Agustindarren plaza 4
 Tif. 943 24 32 10